



8. informazio-zirkularra.

UDALHITZ NEGOZIAZIO

PROZESUA / 2025.11.07

Irailaren 27ko zirkularraren jarraipen gisa, honako hau jakinarazten dizuegu: gaur, 2025eko azaroaren 7an, UDALHITZ Akordio Arautzailea berritzeko negoziazio-mahaiaren bilera egin dela, eta bertan EUDELek eta ELA, LAB, CCOO eta UGT zentral sindikatuek parte hartu dutela.

Gai-zerrendaren arabera, gaurko bilerarako 3. eta 4. multzoak jorratzea aurreikusita zegoen: alde batetik, *"Euskara, Lan Osasuna, Bajak, Gizarte Segurantzak eta Eskubide Sindikalak"* eta, bestetik, *"Ordainsariak, zerbitzuen kudeaketa eta behin-behinekotasuna, Lanaldia, Karrera profesionala eta jardunaren ebaluazioa, Hautaketa eta Horniketa eta barne-sustapeneko neurriak"*.

Gaien konplexutasuna ikusita, eta EUDELek ezin izan dienez sindikatuei idatziz eman bere iritzia behar besteko aurrerapenarekin, 3. multzoko eztabaida hasi ondoren, EUDELek sindikatuei jakinarazi die eztabaida hurrengo negoziazio-mahaira atzeratzeko aukera, bi helbururekin: alde batetik, EUDEL osatzen duten indarren arteko jarrerak adostea, eta, bestetik, sindikatuei beharrezko denbora ematea, jarrera horiek behar den zorroztasunez aztertu ahal izateko.

Circular Informativa nº 8

PROCESO NEGOCIADOR

UDALHITZ / 07.11.2025

Como continuación a la Circular del pasado día 27 de septiembre se informa que, en el día de hoy, 07.11.2025 se ha celebrado reunión de la mesa de negociación para la renovación del Acuerdo Regulador UDALHITZ con la participación de EUDEL y las centrales sindicales ELA, LAB, CCOO y UGT.

De conformidad con el orden del día, para la reunión de hoy estaba previsto tratar los bloques 3 y 4, referidos a *"Euskera, Salud Laboral, Bajas, Seguridad Social y Derechos Sindicales"* por una parte y *"Retribuciones, Gestión de los servicios y temporalidad, Jornada, Carrera profesional y Evaluación del desempeño, Selección y Provisión y Medidas de promoción interna"* por otra.

A la vista de la complejidad de las materias y dado que no le había resultado posible a EUDEL facilitar por escrito a las centrales sindicales su posicionamiento con la necesaria antelación, una vez iniciado el debate del bloque 3, desde EUDEL se ha trasladado a las centrales sindicales la posibilidad de posponer el debate a la siguiente Mesa de Negociación, con la doble finalidad de por un lado consensuar las posturas entre las diferentes fuerzas que conforman EUDEL y, por otra, dar el tiempo necesario a las centrales sindicales de poder analizarlas con el rigor necesario.

Era berean, negoziazioan behar den erritmoari eusteko eta beharrezkoak ez diren luzapenak saihesteko, EUDELeK konpromisoa hartu du egiteke dauden gainerako multzo eta gaietan aurrera egiteko. Horretarako, gai nagusi guztien jarrera orokorra helaraziko die sindikatuei hurrengo negoziazio-mahaiaren aurretik, negoziazio-prozesuan parte hartzen duten alderdi guztiek idatziz eta behar adinako aurrerapenarekin izan dezaten gure elkartearen jarrera orokorra.

Hori dela eta, negoziazio-metodologia hobetu nahi da, eta erabakiak hartzea erraztu, EUDELeK gai guztiei buruzko proposamen orokor bat egin eta gero. Izan ere, ahalegina egin nahi da hurrengo negoziazio-mahaia emankorra izan dadin eta akordio bat lortzeko bidean aurrera egiten lagun dezan.

EUDELeK berretsi egiten du elkarrizketaren eta negoziazio kolektiboaren alde duen konpromisoa eta apustua, hurrengo UDALHITZ Akordio Arautzailea lortzeko formula gisa, eta, ildo horretan, hurrengo negoziazio-mahaiaren emaitzaren berri emango dizuegu, unean-unean.

De igual modo, y con el objeto de mantener el ritmo necesario en la negociación y evitar dilaciones innecesarias, EUDEL se ha comprometido a avanzar en el resto de bloques y materias pendientes, para lo cual trasladará a las centrales sindicales con carácter previo a la siguiente Mesa de Negociación una postura global de todas las materias troncales, de modo que todas las partes intervinientes en el proceso negociador tengan por escrito y con la antelación suficiente el posicionamiento general de nuestra Asociación.

De este modo se pretende mejorar la metodología negociadora, facilitar la toma de decisiones con una propuesta global sobre todas las materias por parte de EUDEL, intentando así que la siguiente Mesa de Negociación resulte productiva y contribuya a avanzar en la consecución de un acuerdo.

EUDEL reitera su compromiso y apuesta por el diálogo y la negociación colectiva como fórmula para la consecución de un próximo Acuerdo Regulador UDALHITZ y en tal sentido, les mantendremos puntualmente informados del resultado de la próxima Mesa de Negociación.



Tel. 94 423 15 00 eudel@eudel.eus www.eudel.eus
Ercilla, 13 (48009 Bilbao)